



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 21ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren hamabostean, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Instantziak

2018rako alokairuko laguntzen deialdia egitea erabaki da.

Azken orduko gaiak

Gizarte zerbitzuetako gizarteratze teknikoaren egoeraz hitz egin da.

Alkateak adierazi du, besteak beste, gizarteratze zerbitzua, RGI laguntzak, larrialdiko laguntzak, bizikidetza, harrera eta elikadura bankua lantzen dituela. Gaineratu du, gizarte laguntzailea lan murrizketarekin dagoela haurren zaintzagatik. Gogoratu da, gizarteratze tekinkoagatik diru laguntza amaitu denez, postu hori bertan behera gelditu beharko litzatekeela. Bestalde, gizarteratze lanak Iraurgi Lantzenek eskaintzen duela gogorarazi du alkateak.

Udalan gauzatzen diren kontratazio guztiak legez, konkurrentzi bidez, egin behar dira eta hautaketa prozesu baten bidez. Udalak abiatuta du lan bat lanpostuak behin betiko betetzeko, 2017ko lan eskaintza publikoan garbitzailea eta gizarte laguntzailea sartu dira, eta hurrengo urteetan ildo berdinetik jarraitu beharko litzatekeela gogorarazi du idazkariak.

Ondorioz, ez da komeni hautaketa prozesurik gabe betetako lan postuak gehitzea. Lan postuak behin betiko betetzeko zailtasun juridikoak egon arren eta behin behinean bete, gutxienez hautaketa prozesu baten bidez egin behar direla adierazi dute batzordekideek. Gai hau aztertzen jarraitu behar dela ondorioztatu da.

Bestalde, Mikel Arregik Rezolako hitzarmenaren likidazioa nola dagoen galdegin du.

Altuna y Uriak hitzarmena likidatzea proposatzen duen lur eremuen balorazio txosten bat egiten ari da Olatz Merkader abokatua.

Mikelek adierazi du ea landu den hitzarmena dirutan likidatzeko aukera, lurren trukean likidatzea legegintzaldi hasieran proposatu zela adieraziaz, egoera ekonomikoa okerragoa zelako, baina orain ekonomia hobetzen doa eta dirudienez Altuna y Uria enpresaren egoera ere bai.

Gorkak erantzun du, lurak eskuratzea ere interesgarria izan daitekeela udalarentzako, eta bestalde, hitzez ere nolabaiteko konpromezu bat hartu dela lurren bidez hitzarmena likidatzeko aukerari buruz.

Lurren balorazio txostena jasotakoan aztertuko da gaiari sakonago.



ZESTOAKO UDALA

4. Batzorde informatiboen bileren akten onarpena

2018ko otsailaren 8an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

Erregu eta galderak.- Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,